



## HEZIKETA BEREZIKO HEZITZAILEEN ZERRENDEN IREKIERA

Bizkaiko Delegaritzan izan da, oraingo honetan, Hezitzaileen zerrenden irekiera. Lehenik eta behin gogorazi nahi dizuegu, nahiz eta irekiera Bizkaian izan den, maiatza inguruan irekitzen den birbaremazioko epean nahi duzun herrialdea aukera dezakezu.

### Eskakizunak:

- Ikasketa-tituluak: Gizarteratzeko edo Haur Hezkuntzako goi-mailako teknikaria, edo horien baliokideak.
- Euskarazko tituluak: HLEA edo baliokidea.

### Eskabidea aurkezteko epea:

- Zerrendak zabalik egongo dira **azaroaren 28tik abenduaren 2ra (biak barne)**.

### Eskabidea aurkezteko tokia:

- Bizkaiko Hezkuntza Lurralde Ordezkaritza (Gran Via, 85. Bilbo)
- Arabako Hezkuntza Lurralde Ordezkaritza (San Prudencio, 18. Gasteiz)
- Gipuzkoako Hezkuntza Lurralde Ordezkaritza (Andia, 13. Donostia)